



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA  
ZERBITZUETAKO BATZORDEA**

**AKTA**

EGUNA: 2016ko ekainaren 16a

ORDUA: 18:00

LEKUA: Udaletxeko Bilera-gelan, 4. solairuan.

**BERTARATUAK**

- ✓ Miguel Angel Bastida Aranbarri J.
- ✓ Javier Zubizarreta Zubizarreta J.
- ✓ Ana Azkoitia Urteaga A.
- ✓ Imanol Arrizabalaga Larrañaga J.
- ✓ Angel Luis Martin Rodriguez J.
- ✓ Gaizka Larrañaga Ucin J.
- ✓ Jose Joakin Etxaniz Peña J.

**ARLOKO ARDURADUNA**

Arturo Garate Zubizarreta

**IDAZKARIA**

Udal Idazkaria, Begoña Garmendia Vázquez

**GAI-ZERRENDIA**

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA**

Aktarik aurkeztu ez denez, batzordekideek gai hau utzi dute hurrengo batzorderako.

**2.- OÑARTXO SEKTOREKO V-3 LURSAILARI DAGOKION %15EKO ERAIKIGARRITASUNA  
DOAN EMATEA**

Batzordekideek ondoko irizpena aztertu eta bozkatu dute:

***“LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA  
ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO***

**DIKTAMENA**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**GAIA: OÑARTXO SEKTOREKO V-3 LURSAILARI DAGOKION %15EKO  
ERAIKIGARRITASUNA DOAN EMATEA**

**AURREKARIAK**

*Azkoitiko Udabatzaren Plenoak, 2015eko urriaren 28an egindako bilkuran, korporazioa osatzen duten kideen ahobatezko botoarekin, ondoko ebazpenak hartu zituen:*

**Lehenengoa.-** Behin betiko izaeraz onartzea Azkoitia Udalerriko Hiri Antolaketarako Araudiaren Testu Bateginaren 3. Xedapen Aldaketa, "Zabale" 16. alorrari, "Oñartxo" 26. alorrari eta Lurzoru Hiritarrezinari dagokiena, 2015eko urrian Sabai Arkitektoak SLP enpresak idatzitako TESTU BATEGINaren arabera.

**Bigarrena.-** 2014ko abenduaren 19an Udabatzaren Osoak adostutako lizentzia-ematea eteteko erabakia indargabetzea.

**Hirugarrena.-** Aldaketa argitaratu baino lehen, agiriaren ale bat (euskarri magnetikoan eta ohikoan) Gipuzkoako Foru Aldundira helaraztea, dagokion Erregistroan gorde dadin.

**Laugarrena.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari ebazpen hauen kopia bat helaraztea hamabost eguneko epean.

*Halaber, hiru hilabeteko epearen barruan ale oso bat igortzea (egindako administrazio-izapidearen udal-espedita eta fase guztietako agiri teknikoak barne), paper-euskarrian behar bezala bideratuta, eta behin betiko onespeneraren dokumentua, euskarri informatikoan eta halaber bideratuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak artxiba ditzala.*

**Bosgarrena.-** Erabaki honen eduki osoa, aldaketa honen xede diren araudiarekin eta hirigintzako fitxekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Seigarrena.-** Erabaki hau lurralde historikoan gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratzea.

**Zazpigarrena.-** Aipatutako berariazko egintza behin betikoa da administrazio-bidean, eta horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA jarri ahal izango da BI HILABETeko epean, azkeneko iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzialdiko Salaren aurrean, araudi hauetan ezarritakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikulua.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Hiri Antolaketako Araudietako 26. Sektoreko -Oñartxo- Sektorean onarturiko aldagetaren xedeak, V-3 lursailean aurreikusitako eraikinean solairu bat gehitzea zuen helburu, zuzkidura-jarduketaren bitartez gauza zedin. Aipatu eremuko sustatzailea Urola Industrialdea -UISA- sozietate publikoa izan da.*

*Francisco Javier Blázquez Sastre Jk., Urola Industrialdea S.A.-ren izenean eta ordezkartzan, Azkoitiko Hiri Antolakuntzako Araudietako 26. Sektoreko (Oñartxo) V-3 lursailari dagokion eraikigarritasunaren %15a aipatu baltzu publikoaren esku uztea eskatu du, udalaren lagapenaren bitartez.*

*Eskaera honen arabera, Sozietate sustatzaileak lursailaren eraikigarritasunaren %100a eskuratzea proposatu du, udalari dagokion %15aren zesia tartean delarik. Beraz, aipaturiko sozietateko ordezkartzak, udalari dagokion eraikigarritasun-ehunekoaren dohaineko transmisioa eskatu du.*

## **TXOSTENAK**

### **TXOSTEN TEKNIKOA**

*Hirigintzako Departamentuko arduradunak txosten bat aurkeztu du, non justifikatu dituen zesioaren arrazoiak, eta proposaturiko lagapenaren balioa kalkulatu du, honako testuaren arabera:*

## **"II.- NORMATIVA DE APLICACION**

---

*El S. 26 Oñartxo es clasificado como suelo urbanizable con la calificación de Actividades Económicas por el Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Azkoitia, así como por la tercera Modificación Puntual de las mismas. Documentación que le es de aplicación:*

*Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Azkoitia, aprobadas definitivamente por el consejo de diputados de 19 de Junio de 2007. Publicadas en el BOG de fecha de 2 de octubre de 2007.*

*Modificación Puntual número 1 del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Azkoitia aprobada definitivamente en sesión plenaria de 22 de junio de 2010. Publicado en el BOG de fecha de 3 de agosto de 2013. El BOG de fecha 16 de noviembre de 2011 publica las fichas de la citada modificación puntual.*

*Modificación Puntual número 2 del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Azkoitia aprobada definitivamente en sesión plenaria de 12 de noviembre de 2012. Publicado en el BOG de fecha de 9 de enero de 2013.*

*Modificación Puntual número 3 del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Azkoitia aprobada definitivamente en sesión plenaria de 28 de octubre de 2015. Publicado en el BOG de fecha de 7 de diciembre de 2015.*

*Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco:*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Decreto 105/2008, de 3 Junio, de Medidas Urgentes en desarrollo de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo:

### **III.- PARTICIPACIÓN DE LA COMUNIDAD EN LAS PLUSVALÍAS GENERADAS**

---

Conforme a lo establecido por la Ley 2/2006 el promotor tiene derecho únicamente al 85% de la edificabilidad urbanística incrementada.

A tal fin, el documento tramitado hasta la fecha, aprobado definitivamente, recoge entre las determinaciones de la ficha urbanística lo siguiente:

De conformidad con lo establecido en el art. 27, 3 de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, según reforma operada a través de la Ley 11/2.008, de 28 de Noviembre, en suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad urbanística ponderada sobre la preexistente, los propietarios tendrán derecho al 85% de la edificabilidad urbanística incrementada, de modo que la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística se referirá al incremento de la edificabilidad atribuida a la parcela. No obstante, **tratándose en este caso el propietario de una sociedad pública no procedería dicha cesión (Art. 118, a) en relación al art. 115, ambos de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo).**

Tras lo expuesto, y teniendo en cuenta que la sociedad UROLAKO INDUSTRIALDEA S.A. se trata de una sociedad pública, este técnico propone conforme al artículo 118 a) en relación al art. 115 de la Ley 2/2006, la cesión gratuita del 15% de participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la actuación urbanística a favor de la citada sociedad UROLAKO INDUSTRIALDEA S.A., conforme se ha actuado hasta la fecha.

### **IV.- CUANTIFICACION**

---

A tal fin se han utilizado los siguientes valores remitidos por esa misma sociedad.

$$V_v = 750 \text{ €/m}^2 \text{ (t)}$$

$$\text{Coste Construcción} = 390 \text{ €/m}^2 \text{ (t)}$$

$$K = 1,40$$

$$VRSU = 750/1,35 - 390 = 165,56 \text{ €/m}^2 \text{ (t).}$$

$$165,56 \text{ €/m}^2 \times 2.001 \text{ m}^2 = 331.285,56 \text{ €}$$

$$15\% (331.285,56 \text{ €}) = \mathbf{49.692,83 \text{ €}}$$

Por lo tanto, se cuantifica el 15% de participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la actuación urbanística en la cantidad de 49.692,83 €.

### **V.- CONCLUSION**

---

**PRIMERO.-** Teniendo en cuenta que la sociedad UROLAKO INDUSTRIALDEA S.A. se trata de una sociedad pública, este técnico propone conforme al artículo 118 a) en relación al art. 115 de la Ley 2/2006, la cesión gratuita a favor de la citada sociedad de la cuantía referente al 15% de participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la actuación urbanística, conforme se ha actuado hasta la fecha, cuantificada en 49.692,83 €.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**SEGUNDO.-** *Dar cuenta del presente informe a los interesados y al departamento de intervención municipal, para que proponga los datos necesarios para el abono enumerado."*

**TXOSTEN JURIDIKOA**

*Udal Idazkariak, bere aldetik, ondoko txostena aurkeztu du:*

*Txosten hau, apirilaren 18ko 781/86 Errege-Dekretu Legegilearen 113.4gn. artikuluan eta Toki-Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/86 Errege-Dekretuaren 172.2 eta 175. artikuluetan xedaturikoa oinarritzat hartuz egin da.*

*Idazkari honek, bere adostasuna adierazten du aurkezturiko proposamenarekin, horretaz gain, honako hau azalduz:*

**1.- Urolako Industrialdea S.A.-ren izaera instrumentala egiaztaturik dago.**

*Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalen eskumen propioak xedatzen ditu; horien artean, 25. atalak tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak eta politikak garatzeko eskumena onartzen die udalei.*

*Helbur hauek betetzearren indarrean dagoen araudiak formula ugari xedatzen ditu, horien artean administrazio ezberdinez osaturiko entitateak, kasu honetan, zuzenbide pribatukoak.*

*Udal honetako artxiboetan dagoen dokumentazioaren arabera, honako informazio hau egiaztaturik dago:*

*Urolako Industrialdea S.A.aren kapitalaren %100a, SPRI-LUR S.A. kapital publikoko sozietatearen ekarpenarekin eta eskualdeko udaletako ekarpenekin osaturik dagoela.*

*Azkoitiko udalaren kapitalaren partehartzea aipaturiko baltzuan %8,97koa dela.*

*Sozietatearen jarduera eta helburuak, herri-administrazioetako eskumenekin loturik daudela, hain zuzen, jarduera ekonomikoetarako lurra eta industria-jarduera sustatzea.*

*Sozietatearen helburu nagusiak, lur industrialaren eta industriaren sustapena hain zuzen, administrazio publiko horiek xedaturiko irizpide eta moduan garatzen dela.*

*Helburu hori bermatzeko, Sozietatearen organo erabakitzaileen kontrola oso-osorik, herri-administrazioen edo horiek osaturiko entitateen eskuetan dagoela.*

**2.- Proposatutako lagapena, lurzorua ondu publikoko xedarekin loturik dago**

*Gai hau Hirigintzako Departamentuko Arduradunaren txostenean justifikaturik dago. Izan ere, Lurzoru eta Hirigintza arautzen dituen Eusko Legebiltzarreko 2/2006 Legearen 113.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera,*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

hirigintzako plangintza egikaritzearen ondorioz lortutako lursail eta eskubideak, (doan lagatako % 15eko hirigintza-eraikigarritasuna barne), udal lurzorua onduko dute.

**3.- Lagapena, dohainik eta modu zuzenean egiteko justifikaturik dago.**

Apirilaren 18ko 781/86 Errege-Dekretu Legegileko 80. honako hau xedatzen du: *Las enajenaciones de bienes patrimoniales habrán de realizarse por subasta pública. Se exceptúa el caso de enajenación mediante permuta con otros bienes de carácter inmobiliario. Hala ere, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/86 Errege-Dekretuko 112.1 artikulua honako hau xedatzen du: Las enajenaciones de bienes patrimoniales se regirán en cuanto a su preparación y adjudicación por la normativa reguladora de la contratación de las Corporaciones Locales*”.

Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Legearen Testu Bateratuak eta Herri-Administrazioetako Kontratuak Legea garatzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, besteen artean, Toki-Entitateen kontratazio-araubidearen legeri nagusia osatzen dute. Aipaturiko Legearen Testu Bateratuaren 4.1.p) artikulua, bere aplikazio-eremutik at uzten diut, besteak beste, izaera patrimonialeko negozio juridikoak, haien izaera pribatua onartuz. Halaber, aipatu Legearen 20.2 artikulua honela dio: *Los contratos privados se regirán en cuanto a su preparación y adjudicación, en defecto de normas específicas, por la presente Ley y sus disposiciones de desarrollo, aplicándose supletoriamente las restantes normas de derecho administrativo o, en su caso, las normas de derecho privado, según corresponda por razón del sujeto o entidad contratante. En cuanto a sus efectos y extinción, se regirán por el derecho privado*.

Beraz, ikusten dugunez, ondare-izaerako ondasunen eskualdaketari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duen legeriak, berriz itzultzen gaitu Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamendura. Azken honek, era orokorrean, apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu bezala, enkantearen sistema ezartzen du aipaturiko eskualdaketarako.

Hala ere, kasu honetan, eskualdatu nahi den ondasuna, Lurzoraren Ondare Publikoari atxikiturik dago, Lurzorua eta Hirigintza arautzen dituen ekainaren 20 2/2006 Legearen 113.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondare honek, berezko araubidea du, aipatu Legearen IV Tituluko I Kapituluko I Atalean.

Beraz, ondasun patrimonialen eskualdaketarako legeri orokorrak xedatzen duen araubidea baztertu behar da kasu honetan, legeri bereziaren xedapenen lehenetsutako aplikazioaren aurrean. Zera da, Urola Industrialdea S.A.-ren izaera instrumentalak, eta eskualdatzen diren ondasunen adskripzio bereziak, lurzorua onduko atxikituak bait daude, justifikatzen dute herri-administrazioetako ondasunen legeria orokorra ez ezartzea, zehazki era zuzenean eta dohainik gauzatuko delarik. Izan ere, Lurzorua eta Hirigintza arautzen dituen ekainaren 20 2/2006 Legearen 118.a) atalean xedatutakoaren arabera, lurzoru-ondare publikoaren ondasunak doan edo beren balioaren azpian laga ahal izango dira hartzailea administrazioa edo bere ente instrumentala direnean, beti ere 115. artikuluan zehaztutako xedetako bata daukatenean.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Aipatu den 2/2006 Legearen 115.1.c) artikulua xedatzen duenez, zuzkidura publikoetarako izendatuta ez dauden ondasunak eta lurzoru-ondare publikoa osatzen duten baliabideak, besteak beste, sustapeneko edo interes publikoko jardura ekonomikoetarako lurzoria eskuratzeko edo lurzoria sustatzeko erabiliko dira. Kasu honetan, UISAren xedea ikusirik, baldintza horrekin lotuko da proposaturiko eraikigarritasunaren lagapena.*

*Dohaineko eskualdaketa onartzeko eskuduntza duen organoa, Udalbatza Plenoa da, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/86 Legeko 22.2.o) artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*Beraz, Azkoitiko Hiri Antolakuntzako Araudietako 26. Sektoreko (Oñartxo) V-3 lursaileko zuzkidurako jarduketaren ondorioz Azkoitiko udalari dagokion eraikigarritasuna Urolako Industrialdea S.A.-ti dohainik eskualdatzearen ALDEKO IRITZIA ematen du Idazkari honek, beti ere lagapenaren xedea lurzoruaren ondareari axikitzeo baldintza kontutan hartuta."*

.....

*Beraz, Lurralde Antolakuntza, Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuetako Batzordeak ondoko irizpidea onartzea proposatu dio Udalbatza Osoari:*

#### **IRIZPENA**

**LEHENA.-** *Urolako Industrialdea S.A.-ri dohainik eskualdatzea Azkoitiko Hiri Antolakuntzako Araudietako 26. Sektoreko (Oñartxo) V-3 lursailean aurreikusirik dagoen zuzkidurako jarduketan Azkoitiko udalari dagokion %15eko eraikigarritasuna.*

**BIGARRENA.-** *Eskualdatzen den eraikigarritasuna, lurzoru-ondare publikoaren xedearekin lotuko da, Lurzotru eta Hirigintza arautzen dituen Eusko Legebiltzarreko 2/2006 Legearen 115. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

**HIRUGARRENA.-** *Erabaki hau interesatuari eta Udaleko Kontuhartzaitzari jakinaraztea."*

Gaizka Larrañaga J.k galdetu du partzelaren jabea zein den. Arturo Garate J.k erantzun dio era guztietan eremu honen sustatzeilea UISA dela, eta hark egindako salmentan kontzeptu hau kontutan hartu duela sozietate publikoak, eta %15eko lagapena ez zaiola aplikatu salmentako prezioari.

Ondoren, Javier Zubizarretal azalpenak eman ditu enpresa erostailaren ezarpen prozesuari buruzkoak.

Batzordekideek irizpena bozkatu dute, ondoko emaitzarekin:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Imanol Arrizabalaga, Angel Luis Martin, eta Jose Joakin Etxaniz.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Abstentzioa:** Gaizka Larrañaga.

Beraz, Azkoitiko udaleko Lurralde Antolakuntza, Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak, AHO BATEZ onartu du Azkoitiko Multzo Historikoko Plan Bereziaren 2. aldaketaren behin betiko onespena jasotzen duen irizpena.

### **3.- OBREI BURUZKO INFORMAZIOA**

1º. Batzordeko Lehendakariak adierazi die batzordekideei aurreko astean eman zirela azalpenak gai honi buruz.

### **4.- GALDE-ERREGUAK**

Miguel Angel Bastida J.k azaldu ditu bilera honetan aurreko bilkuran planteatu ziren hainbat galderei erantzunak:

1.- Goiko Kanean aparatzen duten ibilgailuek sorturiko arazoei dagokienez, azkeneko hilabete hauetan jarritako multen zerranda ekarri zuen azkeneko bilerara Bastida J.k. Bestaldetik, zineman edo frontoian ikuskizunak daudenean Oteiza frontoien inguruan hartzen diren neurrien berri eman die batzordekideei.

2.- Bidegorrian, Trenbidearen Zumardiaren inguruan, konponketa lanak egiten ari da udal lantaldea.

3.- Lantaldearen 117. pabilioian erakusketa baten materiala topatu zuten eta bere jabeari, Kutxabank.i, itzuli zaio.

4.-Altzibarren, autobusaren geltokiaren inguruan, zorua konpontzen ari dira.

5.- Herriko hainbat puntuetan eskudelak jartzen ari dira ere.

6.-Hainbat baserri bideetan ispiluak jartzen ari dira, halaber Auzmendi bidean Eroski inguruan, etab.

7.- Trenbidearen Zumardian jarrita daude bankuak konpontzen ari dira: udal lantaldeak desmontatu egin ditu, eta enpresa batera bidali dira; han lixatu eta barnizatuko dituzte eta berriro udallantaldeak montatuko ditu. Enpresak kobratzen du 36,25 € banku bakoitzeko. Lan hauek herriko eremu guztietan egin nahi da, zonaka antolatuta.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

8.- Iturrien konponketa lanetan, Barriketako iturria aztertu dute, eta pitzatuta dagoela egiaztatu dute. Txapuza asko egin zaizkio iturri hari. Konpontzeko irtenbideak aztertzen ari da, eta horretarako kantero batekin eta Gipuzkoako Urak S.A.ko pertsonalarekin egon da.

Gaizka Larrañaga J.k ondorengo hauek aipatu ditu:

1º.- Nola daude Iriarte Kaleko lanak? Miguel Angel Bastida J.k erantzun dio obrak hasi direla eta datorren astean elkartuko direla bizilagunekin. Aztertzen ari dira, bestaldetik, Atraskua tabernaren inguruan dagoen eremua, aktuazioa egiteko ere.

Javier Zubizarreta J.k gehitu du, obra aurkeztu zitzaizela Inazio Iriarteko bizilagunei Elkargunean egindako bileran.

2º.- Gaizka Larrañaga J.k aurkeztu du proposamen bat hileta zibilak egiteko Azkoitiko udalerrian, Ordenantza arautzailea hain zuzen.

Jose Joakin Etxanik J.k ondorengo hauek galdetu ditu:

1º.- Zein da Danobat etxeetan eraiki den igerilekuaren egoera? Arturo Garate J.k erantzun dio, eta aipaturiko promozioaren ibilbidea azaldu dio zinegotziari. Izan ere, bere egunean ezinezkoa izan zen eraikitako etxebizitzaren lehen erabilerako baimena ematea, hiritartze lanak bukatu gabe edo gaizki bukatuta zeudelako. Halaber, lanak ezin ziren bukatu erabat, zati bat lotuta zegoelako Martitako zubi berriaren obrarekin. Egoerari irtenbide bat emateko hitzarmen bat izenpetu zen enpresa sustatzailearekin. 2015Ean, lehen erabilerako baimena ematerakoan, arazoak sortu zituen eraikitako igerilekuarekin. Igerileku hau ez zen azaltzen hasierako proiektuan, eta jarduera legeztatzeko inolako proiekturik ez zen aurkeztu. Horretaz gain, igerilekuak zarata asko sortzen zituen, eta azpiko etxebizitzari eragiten zien. Arrazoi hauek kontutan hartuz, etxebizitzaren lehen okupazioko baimena eman zen, baino pizina klausuratzea agindu zen, jarduera legeztatu arte, eta zarata-arazoak konpontzen ez ziren bitartean. Horren ondoren, pizina jaso eta isolatu dute, baino oraindik jarduera legeztatzeko proiekturik ez dute aurkeztu.

2º.- Batzordekideak, oinarri topografiko eta kartografiko fidagarria edukitzeko beharra azaldu du. Arturo Garate J.k erantzun dio 2007an, Arau Subsidiarioak egiterakoan, oinarri bat osatu zen, eta eremu bakoitzaren urbanizazioaren amaierarekin batera, hari dagokion oinarri topografikoa jasotzen dela, baino ezin dela egiaztatu, kontrasteko elementuak ez direlako fidagarriak. Hain zuzen, bakoitzak datu ezberdinak ditu.

Jose Joakin Etxanik J.k gehitu du horrela dela, Foru Aldundiaren oinarri topografikoak kota ezberdinak dituela, herri bakoitzak bere erara doa, eta Foru Aldundia aparta. Oinarri topografiko guztiak bateratzeko beharra azaldu du batzordekideak. Herrikoak eskatu ditu.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Arturo Garate J.k erantzun dio ez dagoela inolako arazorik herriko oinarri topografikoa helarazteko eskatzaileari.

Aztertze gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko 18:45 direnean eta nik, idazkariak, akta hau jaso dut, onartuz gero, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**LEHENDAKARIAK**

**IDAZKARIAK**